

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

LURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZAREN SAILA

Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzua

Behin betiko onespena ematea Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren egiturazko xedapen-aldaketa bati, garai bateko Salburua 7. sektoreko T hirugarren sektorerako lursaila berdegune gisa birkalifikatzeko eta garai bateko Ibaialde 11. sektoreko M7 hirugarren sektorerako lursaila handitzeko

Hauxe erabaki zuen Udalbatzak 2020ko otsailaren 21ean egindako ohiko bilkuran:

Gaia: Behin betiko onespena ematea Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren egiturazko xedapen-aldaketa bati, garai bateko Salburua 7. sektoreko T lursail tertziarioa berdegune gisa birkalifikatzeko eta garai bateko Ibaialde 11. sektoreko M7 lursail tertziarioa handitzeko.

Erabaki-proposamena

Hauexek dira proposatutako antolamendu-aldaketa izapidetzeko beharraren eta egokieraren arrazoiak:

Batetik, Salburuko hezeguneen babes-zonan dagoen T lursaileko 7. sektoreko berdegunea handitzeko interesa eta, bestetik, 11. sektoreko M7 lursailean eraikitze ezintasuna konpontzea —egun ez baitu aurrealderik bide publikora— dira proposatutako aldaketaren behar eta egokieraren arrazoiak.

Proposatutako aldaketek HAPOko atal hauei eragingo diete:

— II. liburukia. IV. titulua. 3. kapitulua. 1. atala. 4.03.03. artikulua. Hiri lurzorua, eremu-erregimenean. (9. gauzatze unitate berria gehitu behar da, hirugarren sektorea, Salburuan eta Ibaialden).

— II. liburukia. I. eranskina. Eremu-fitxak. Hiria. Hiri lurzorua. Gauzatze-unitateak:

• 9. UE, hirugarren sektorea, Salburuan eta Ibaialden.

— VI. liburukia. Dokumentazio grafikoa:

• 4.13. planoak. Hirigintza-kudeaketa. Antolamendu- eta kudeaketa- arloak hirian (9. gauzatze-unitate berria gehitzea, hirugarren sektorea, Salburuan eta Ibaialden).

• 6.38 eta 6.39 planoak. Lerrokadurak eta kalifikazio zehatua (hiria).

2/2006 Legearen 53.2 artikuluan xedatutakoaren ildotik, egiturazko aldaketa da, hirigintza-erakigarrtasuna aldatu egiten baita hasiera batean bi eremu zirenen artean, eta eremu berria —gauzatze-unitate bat— mugatzen.

2/2006 Legearen 103.2 artikuluan aurreikusitako ondorioei dagokienez, gauzatze-unitatea eta haren hirigintza-erakigarrtasun osoa zehaztea egiturazko aldaketatzat jotzen da; unitatea zehazten duten parametroak —bertan dauden lursail guztien kalifikazio zehatua eta hirigintza-erakigarrtasuna barne— eta han lehendik dagoen zerbitzugunerako gutxieneko distantzia gordetzetik salbuestea, berriz, xedapen-aldaketatzat.

Aplikatzekoak diren legezko arauak dagokienez, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 61. eta 62. artikuluek zehazten dituzte plangintza orokorraren eduki substantiboa eta eduki hori formulatzeko gutxieneko agiriak. Lege beraren 90. eta 91. artikuluetan, berriz, plangintza orokorra egiteko, izapidetzeko eta onartzeko arauak ezartzen dira.

Aipatutako 2/2006 Legearen 103. artikulua xedatutakoaren arabera, hirigintza-planen berrikuste oro egiteko, beharrezkoa izango da hirigintza-plan horiek aldatzea; 104. artikulua dioenez, hirigintza-planen zehaztapenak berrikusi eta zehaztapenetan edozein aldaketa egiteko, plan mota berbera erabili beharko da, eta, horretaz gain, zehaztapen horiek onartzeko jarraitutako prozedura bera erabili beharko da.

Udal Plangintzarako Aholku Kontseiluaren Araudiak—2008ko maiatzaren 4an onetsia— 6. artikuluan eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 109. eta 110. artikuluetan xedatzen dutenez, jendaurreko aldiaren Udal Plangintzarako Aholku Kontseiluak nahitaezko txostena egin behar du plangintza orokorrean egin nahi den aldakuntzaren inguruan, eta hasierako onespenerako agirian jaso.

Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 91.2 artikulua xedatzen duenez, behin-behineko onespena jaso duen plangintza orokorraren aldakuntza-proiektua Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari igorri behar zaio, txostena eman dezan; izan ere, horiek guztiek bat etorri behar dute lurralde antolamendurako tresna guztiekin zein estatuaren, erkidegoaren edo foru aldundiaren eskumenekoak diren alderdi sektorialekin.

Tokiko Gobernu Batzarra da Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra aldatzeko proiektua onesteko organo eskuduna; izan ere, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 127.1.c) artikuluan —Tokiko Gobernu Modernizatzeko Neurriei buruzko 57/2003 Legeak erantsia— xedatutakoaren arabera, Tokiko Gobernu Batzarrari dagokio hirigintza-antolamenduko tresnen proiektuak onestea, horien behin betiko zein behin-behineko onespena Udalbatzari dagokionean.

Udalbatzari dagokio plangintza orokorrari hasierako onespena ematea, eta hirigintza-legedian aurreikusitako antolamenduko planen eta gainerako tresnen gaineko udal izapiddeen amaiera onestea, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 123.1.i) artikulua —Tokiko Gobernu Modernizatzeko Neurriei buruzko 57/2003 Legeak erantsia— dioenaren arabera.

Aurretik aipatutako arauak kontuan hartuta, honako tramitazio hau izan du dosierak:

— 2018ko martxoaren 23an, Gasteizko Udalaren ekimenez, herritarren partaidetza-programa onetsi zuen Hirigintza Saileko zinegotziak, eta prozedura honen xede den aldaketa idazteko eskatu zion Hirigintza Saileko Plangintzarako eta Hirigintza Antolakuntza Gauzatzeko Zerbitzuari.

— 2018ko apirilaren 4an, Udalaren web-orrian argitaratu ziren planaren aldaketaren aurrekariak, ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak, onestearen beharra eta egokitasuna, arauaren helburuak eta izan daitezkeen konponbide alternatiboak, arautzaileak eta ez arautzaileak.

— 2018ko ekainaren 18an, proposatutako planeamendu-aldaketaren berri izan zuen Udal Plangintzarako Aholku Kontseiluak, eta aldeko txostena egin.

— Dagozkien sektore-txostenen eskaerak eginda, udal zerbitzu teknikoek 2019ko urtarrilean idatzi zuten garai bateko Salburuko 7. sektoreko T hirugarren sektorerako lursaila berdegune gisa birkalifikatzeko eta garai bateko Ibaialde 11. sektoreko M7 hirugarren sektorerako lursaila handitzeko proiektua.

— Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko urtarrilaren 25ean onetsi zuen udal antolamenduaren aldaketa hori jasotzen duen udal teknikarien proiektua.

– Hasierako onespeneren erabakia 2019ko martxoaren 13an argitaratu zen ALHAOn, eta 2019ko martxoaren 6an, lurraldean zabalkunderik handiena duten egunkarietako batean, eta bi hilabeteko epea eman zen alegazioak aurkezteko. Emandako epean ez zen alegaziorik aurkeztu.

– 2019ko martxoaren 6an aldaketari buruzko informazio-saioa egin zen, eta bertan, planeamendu aldaketaren nondik norakoak eta alegazioak egiteko aukerak eta modua azaldu zituzten udal teknikariek.

– 2019ko maiatzaren 13an, Uraren Euskal Agentziaren txostena jaso zen, zeinean Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren txostena ere agertzen baitzen. Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren txostena aldekoa da, baina sotoaren estankotasuna bermatu behar dela adierazten du, eta ezin dela baimendu drainatzeko gailurik instalatzea estradosean. Eskari hidriko berrien aldeko txostena ere egin zen. Adierazitakoaren arabera, proposatutako aldaketak ez du saneamendu eta hornikuntzako eskari berririk sortzen, oso hurbil daudenez, 7. sektoreko T lursailerako aurreikusitakoak aldatu egiten baitira 11. sektoreko M7 lursailera, eta gehitu egiten baitzaizkie lursail horrek berez dituen. Dauden sareen ahalmena nahiko dela adierazi zuen AMVISAK txostenetan. Saneamendu-sareen eskemak planoei gehitu zaizkie, eta sotoen estankotasun eta drainatzearen inguruko baldintza dagokion eremuko fitxan jaso da.

– 2019ko urriaren 10ean, Udalbatzaren behin-behineko idazkari nagusiak zuzenbideari egokitzearen eta dosierrari behin-behineko onespenera emateko arauzko prozeduraren aldeko txostena egin zuen.

– Udalbatzak 2019ko urriaren 18an eman zion behin-behineko onspenera planeamendu aldaketari.

– Euskal Herriko Lurralde Antolamenduko Batzarraren Arabako Hirigintza Planeamendurako Atala proposatutako aldaketaren alde agertu zen 2019ko abenduaren 18an egindako bilkuran (7/2019).

Aipatutako guztia kontuan harturik, eta behin betiko onetsi nahi den agiriak ez duenez alde-rik behin-behineko onspenera jaso zuen agiriarekin, Gasteizko udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean aipatutako egiturazko aldaketa egitearen alde agertu dira udaleko teknikariak 2020ko urtarrilaren 10eko txostenean, hau da, garai bateko Salburua 7. sektoreko T hirugarren sektorerako lursaila berdegune gisa birkalifikatzea eta garai bateko Ibaialde 11. sektoreko M7 hirugarren sektorerako lursaila 7. sektoreko T lursaila handitzea helburu duen aldaketaren alde.

Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrearen aldaketa honi dagokion proiektuan honako hauek jaso dira: lan taldea, proposamenaren xedea, aurrekariak, aldaketaren justifikazioa eta beharra, hirigintza estandarrak betetzeari buruzko justifikazioa, bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioaren azterlana, iraunkortasun ekonomikoari buruzko txostena, herritarren partaidetzarako programa eta dokumentazio grafikoa.

Proposatzen den plangintza orokorraren aldaketarekin bat etorritz, dosierraren parte diren agiri urbanistikoek haren beharra eta egiteko egokiera justifikatzen dutela, ikusita aipatutako aginduak zein aplikatu beharreko beste guztiak, eta aipatutako legearen 122.4.a) artikulua aitortzen dizkion eskumenak baliaturik, Lurralde Batzordeak erabaki hau har dezan proposatzen dio Gasteizko Udaleko Udalbatzari:

Erabakia

1. Behin betiko onspenera ematea Salburua 7. sektoreko hirugarren sektorerako T lursaila berdegune gisa birkalifikatzeko eta garai bateko Ibaialde 11. sektoreko hirugarren sektorerako M7 lursaila handitzeko xedez Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean egin nahi den egiturazko xedapen-aldaketari, udaleko zerbitzu teknikoek 2019ko ekainean idatzitako proposamenarekin bat etorritz.

2. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 89.5. artikuluan xedatutakoaren ildotik.

3. Erabaki honen kontra, amaiera ematen baitio administrazio-bideari, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko da zuzenean Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 46.1 artikuluekin bat etorritz.

Aldatutako arauak

II. liburukia: Xedapen orokorrak eta luraren erregimena

IV. titulua: Lurzoruaren sailkapena eta erregimena

3. kapitulua: Lurzoruaren araubidea

1. atala. *Kategoriak, motak eta sartzeko irizpideak.*

...

4.03.03. artikulua.- Hiri-lurzorua, eremu-erregimenean

1. Eremu-erregimeneko hiri-lurra aldi berean lur-kategoria eta motaren erregimenaren arabera eta sartuta dagoen eremuari dagokionaren arabera arautzen da. Plan honek antolamendu eta kudeaketa-eremuren batean sartutako hiri-lurzorua hartzen du barne, baita arau hauetako II. tituluaren araututako prozedurari jarraituz ekimen publiko edo pribatuaren bidez sar litekeena ere. Atzemandako arazo bat egoki konpontzearen Plan Orokorrak geroago garapen tresnaren bat (plan berezia, xehetasun-azterketa etab.) edo kudeaketarako tresnaren bat erabiltzea proposatzen duenean sortzen da eremua.

2. Azken kategoria honetan lau lur-mota bereiz daitezke: barne berrikuntzako-plan bereziak garatu beharreko poligono baten barruan eta jabeek eskatzen zaizkien lagapenak eta urbanizazioaren kargak eta onurak ekitatez banatzea onartuko dutela bermatuko duen kudeaketa baten barruan daudenak; exekuzio-unitate baten barruan daudelako, eragindako jabeen artean plangintzatik edo —halakorik bada— xehetasun-azterketaren garapenetik eratortzen diren kargen eta onuren bidezko banaketa egitearen zain daudenak; zuzkidura-jarduketa baten barruan sartuta daudelako hirigintza-eraikigarritasuna handitzeagatik zuzkidura-karga kentzeko beharra betetzeke dutenak; gertu daudelako edo beste edozein mendekotasun tarteko, lehenago egin beharreko jarduketa bakartu batek baldintzatuta daudenak, zeina plan honek berak zehaztua baita, edo bertako sistema orokorrak garatu eta gauzatzearren administrazioiko beste organo batek zehaztutakoa.

EXEKUZIO-UNITATEETAN MUGATUTAKO HIRI-LURZORUA

HIRIA

- U. E. 1. Mercedes-Ehari
- U. E. 2. San Prudentzio azpipoligonoa
- U. E. 4. Jose Mardones
- U. E. 5. Abetxuku ipar-ekialdea
- U. E. 6. Betoñu bizitegia hegoaldea
- U. E. 7. Arte Garaikideko Euskal Museoa
- U. E. 8. Fagorren zabalkundea
- U. E. 9. Salburua-Ibaialde, hirugarren sektorea

Vitoria-Gasteizen, 2020ko otsailaren 24an

Alkate lehendakaria
GORKA URTARAN AGIRRE

I. ERANSKINA. II. LIBURUKIA

EREMU-FITXAK

HIRI LURZORUA: GAUZATZE UNITATEAK.

EREMUKO FITXA
U.E.-9 GAUZATZE-UNITATEA

U.E.-9. HIRUGARREN SEKTOREA,
SALBURUA-IBAIALDE



SAILK. OROKORRAK	bizitegia, % 100,00
KALIF. ADIERAZGARRIA	hirugarren sektorea
LURZORU MOTA	hiri-lurzoria
AZALERA, GUZTIRA	4.193 m ²
ERAIKIGARRITASUN GORDINA	3.452 m ² e /m ² l
APROBETXAMENDU TIPOA	0,8233 m ² eh/m ² l
GARATZEKO TRESNA	hirigintzako jarduketa-prog., birpartzelazio proiekt., eta urbanizazio proiekt.
JARDUKETA-SISTEMA	hitzarmena (jabe bakarra)
EKIMENA	privatua
EPEA	bi urte

I. ERANSKINA. II. LIBURUKIA
EREMU-FITXAK
HIRI LUZORUA: GAUZATZE UNITATEAK

EREMUKO FITXA.
HIRI LUZORUA U.E.-9
SALBURUA-IBAIALDE
U.E.-9. HIRUGARREN SEKTOREA,

LURZORU MOTA	LURZORUAREN SAILKAPENA / KALIFIKAZIOA			ORDENANTZA / LURRAREN APROBETXAMENDUA				
	KALIFIKAZIO GLOBALA	AZALERA m ²	KALIFIKAZIO XEHATUA	KUANTIFI-KAZIOA m ²	(2) APLIKATU BEHARREKO ORDENANTZA / (ERREFERENTZIA)	ERAIKIGARRITASUNA m ² /m ²	IRABAZIZKO APROBETX. GUZTIRA (m ² e)	GEH. ETXEBIZITZA KOP.
Hiri lurzorua	Bizitegia	4.193	Hirugarren sektorea Tokiko berdegunea	2.662 1.531	Ereму baldintzak	1,30	3.452	-
GUZTIRA		4.193					3.452	-

IRABAZIZKO GUZTIRA:	APROBETXAMENDUA,	3.452 m ² e	APROBETXAMENDU TIPOA, U.E.-9:	0,8233 m ² eh/m ²
ERAIKIGARRITASUN GORDINA:		0,8233 m ² e/m ²		
ERAIKIGARRITASUN GARBIA:		0,8233 m ² e/m ²	HOMOGENEIZAZIO-KOEFIZIENTEAK:	
			Erabilera eta tipologia bereizgarria:	Hirugarren sektorea
				1

(2) Aplikazio loteslea, edo tipologia erreferentziazkoa, parentesi artean badago.
(3) Sistema onokorrek alde batera utzita.

I. ERANSKINA. II. LIBURUKIA

EREMU-FITXAK

HIRI LUZORUA: GAUZATZE UNITATEAK

EREMUKO FITXA**9. GAUZATZE UNITATEA****Hirugarren sektorea, Salburua-lbailde****IZENA**

Hirugarren sektorea, Salburua-lbailde

XEDEA

Jatorrian Salburua 7. sektorearen plan partzialeko T lurzatia eta lbailde eta ingurunea 11. sektorearen plan partzialeko M7 lurzatia zirenak antolatzea.

ANTOLAKUNTZA-ARAUAK

7. sektoreko T lurzatia zena gaur egun inguratzen duen ZV 4 berdegunean ondorio guztietarako integratuta geratzeko moduan urbanizatuko da.

11. sektoreko M6 eta M7 lurzatiaren arteko berdegune berriari tratamendu urbanoagoa emango zaio, alegia, eremu zolatuek eta trazatu geometrikoek leku gehiago hartuko dute, igarotzeko eta egoteko eremuak tartekatuz eta lorategi, parterre, zuhaitz eta altzariz hornituz, ingurua lineala dela eta egoteko eta oinezkoak igarotzeko funtzioa izango duela kontuan hartuz jarriak.

Ez da partzelaziorik onartuko, eta ez da atzeraemangunerik edo itxiturarik eskatzen.

Hirugarren sektoreko lurzatiaren gehieneko okupazioa: % 100.

Gehieneko altuera erlaitzeraino: 9 metro, bi solairutan (B + 1).

Sotoak: gehienez sestraz azpiko solairu bat onartuko da; estankoa izan beharko du, eta entradosean ez da drainatzerik baimentzen.

Nahitaezko lerrokadurak: Arriagako atera, lurzatiaren aurrealdearen luzeraren bi herenetan gutxienez, eta Toni Morrison kalera, kale horretara ematen duen fatxadaren luzeraren bi herenetan. Ondorio horretarako, berariaz salbuesten dira bai lurzatia bai bertan egitekoak diren eraikinak lehendik zeuden zerbitzuguneetara distantzia mugatzetik, indarrean dagoen HAPOaren barruko ibilgailuentzako erregai eta karburanteen hornidura edo salmentarako instalazioei buruzko arau partikularretako 5.05.09 artikulua hori ondorioztatzea ahalbidetu arren.

Eremu osoa Gasteizko aireportuaren zortasun aeronautikoen eremuaren barruan sartuta dago. Erantsitako planoan irudikatzen dira Gasteizko aireportuko zortasun aeronautikoak mugatzen dituzten azalaren maila-lerroak; horiek ezarritako altuera (itsasoaren maila kontuan hartuta) ezingo dute gainditu ez eraikinek, edozein elementu barne (antena, tximistorratzak, tximiniak, aire giroetako ekipoak, igogailu-kutzak, kartelak edo erremate apaingarriak, etab.), ez lurzoruaren aldakuntzek edo objektu finkoak (zutoinak, antena, airesorgailuak eta horien palak, kartelak, etab.), ez bideko edo trenbideko galiboei ere.

Eraikuntza edo instalazioek —postea, antena, airesorgailuak (palak barne)—, eraikuntzarako beharrezko diren bitartekoak —eraikuntza-garabiak eta antzekoak barne— nahiz landaketek Aire Segurtasuneko Estatuko Agentziaren (AESA) aldeko erabakia beharko dute alde aurretik.

Aire Segurtasuneko Estatuko Agentziak (AESA) debekatu, mugatu edo baldintzatu egin ahalko ditu jarduerak, aireko operazioetarako edo instalazio erradioelektrikoetarako arriskurik bada. Aipatutako jarduerak ezarri edo bideratzea ahalbidetzen duten lurzoruaren erabilerei ere eragingo die horrek, hauei, besteak beste:

- a) Turbulentziak eragin ditzaketen oztopoen eraikuntza berekin dakarten jarduerak.
- b) Arriskua sortu edo nahasmena eragin dezaketen argiak erabiltzea, laser proiektagailu edo emisoreak barne.
- c) Azalera handiak eta oso islatzaileak —itsutzea eragin dezaketenak— erabiltzea eskatzen duten jarduerak.
- d) Aerodromoaren mugimendu-zonaren inguruan faunaren jardura bultzatzen dituzten jarduerak.

I. ERANSKINA. II. LIBURUKIA

EREMU-FITXAK

HIRI LUZORUA: GAUZATZE UNITATEAK

e) Erradiazio-iturri ikusezinak ezartzea edo funtzionatzea dakarten jarduerak, baita komunikazio, nabigazio edo zaintza aeronautikoen funtzionamenduan interferentziarik edo kalterik eragin lezaketen objektu finko edo mugikorren presentzia dakartenak ere.

f) Kea, lainoa edo aireontzientzat arriskutsua gerta litekeen beste edozein fenomeno sortzen duten instalazioak ezarri edo funtzionatzea errazten edo berekin daramaten jarduerak.

g) Kiroi jardueretarako edo bestelakoetarako aireko propulsiio- edo sostengu-bitartekoak erabiltzea.

APROBETXAMENDUA

Fitxaren arabera.

LOTURA MAILA

Eremuko loturen erregimen orokorra.

NAHITAEZKO LAGAPENAK

Tokiko berdegunea (1.531 m²).

URBANIZATZEAREN ZAMAK

Tokiko berdegunea (1.531 m²).


Vitoria-Gasteizko Udala
Hirigintza Saila



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Departamento de Urbanismo

Modificación puntual del Plan General de Ordenación Urbana
Distribución de la edificabilidad de uso terciario exclusivo de las parcelas
T del antiguo sector 7 y M7 del antiguo sector 11

Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren xedapen-aldaketa
Jatorrizko 7. sektorearen T lursailaren eta 11. sektorearen M7 lursailaren
zerbitzu erabileraren eraikigarritasunaren banaketa



S-1	SECTORES SEKTOREAK	UE-9	UNIDADES DE EJECUCIÓN EGIKARITZE-UNITATEA
SNC	SUELO URBANO NO CONSOLIDADO DE SALBURUA Y ZABALGANA FINKATU GABEKO HIRI LURZORUA SALBURUAN ETA ZABALGANAN		

PM.I		
PLANEAMIENTO MODIFICADO. GESTIÓN URBANÍSTICA, ÁMBITOS DE ORDENACIÓN Y GESTIÓN PLANGINTZA PROOSAMENA. HIRI KUDEAKETA, ANTOLAMENDU ETA KUDEAKETA ESPARRUAK		
Escala/Eskala 1:2.000	Fecha/Data JUNIO 2019 EKAINA	Ingeniero de Caminos/Bide ingeniaria ALFREDO PIRIS PINILLA

Vitoria-Gasteizko Udala
Hirigintza Saila



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Departamento de Urbanismo

Modificación puntual del Plan General de Ordenación Urbana
Distribución de la edificabilidad de uso terciario exclusivo de las parcelas
T del antiguo sector 7 y M7 del antiguo sector 11

Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren xedapen-aldaketa
Jatorrizko 7. sektorearen T lursailaren eta 11. sektorearen M7 lursailaren
zerbitzu erabileraren eraikigarritasunaren banaketa



- TE-OA TERCIARIO. ORDENANZA DE ÁMBITO ZERBITZUETARAKO. ESPARRUAREN ORDENANTZA
- ES-ZV ZONAS VERDES PÚBLICAS ERABILERA PUBLIKOKO BERDEGUNEAK

MP.2		PLANEAMIENTO MODIFICADO. ALINEACIONES Y CALIFICACIÓN PORMENORIZADA PLANGINTZA PROPOSAMENA. LERROKADURAK ETA KALIFIKAZIO XEHEA	
Escala/Eskala	Fecha/Data	Ingeniero de Caminos/Bide ingeniaria	
1:2.000	JUNIO 2019 EKAINA	ALFREDO PIRIS PINILLA	